

HANS-URS von BALTHASAR

Aurtengo oporretan irakurritako libururik atsegingarrienetarikoa «L'heure de l'Eglise» izan jat. Bere autorea Hans-Urs von Balthasar pentsalari ta teologu aundia. Mesedegarriago jataz olako liburuak irakurtzea alako oporrak ez dakit non... Liburu bat irakurtzean, alkarizketan ari zara egilearekin ta naizta askotan beragaz ados egon ez, beti izaten dira aberasgarriak ortik sortzen diran ondorioak. Niretzat badau oraindino balioa Gutenbergen aroak..

Suizar onen azken liburuan agertzen dira ainbat zeaztasun interesgarri makina bat gai ta pertsoneri buruz. Gaien artean onexeeek aipatu daikeguz: Eleiza gaurko munduan, askapen teologia, Vaticano II, sexualitatea, mass-media, Zen ta beste sortaldeko meditaziño bide, bakea teologian. Ta ainbeste pertsoneri buruz emoten dabezan sartzeladak be ez dira makalak. Ederto margoztuta agertzen dira: K. Rahner, Y. Congar, H. Kung, L. Boff, Lefevbre edo Adriana von Speyr. Guztioi buruz ikerketa sakon ta leialak, askotan garratzak be bai. Bere elburu nagusia liburu onetan Eleizaren ordua puntuan ipintea dala, esan leike. Bere iritziak aparteko sona daukee.

Fededun jakintsua

Balthasarren aurrean, ez daki batek zer miretsi: bere jakituria ala bere sinismen sendoa. Beragan ederto alkartuta dagoz ja-



L'HEURE DE L'EGLISE

78

ELIZA

kintza ta fedea. Ez da guzurra, ez, Vienako Thum filosofuak diñoana: «gaurko munduan daukagun gizonik jakintsuenetarikoa bat, Balthasar dogu». Ez da izango erresa beratu bezelako kultura zabal ta orokorrean oinarritutako gizon jakintsu bat aurkitzea: Pentsalari ta piano jotzaile trebea, matematiku ta elerti-zale sekulakoa, istorialari ta teologu bikain gitxiren artean bikainetarikoa. Bera bezelako jakintsurik ez dira dozenean amairu.

Zurichen, Vienan, ta Berlinen egingo ditu klasikuen ta germanistika goimaillako ikasketak. Or aztertuko ditu Plotino, Platon, Kant, Goethe, Schiller, Lessing, Nietzsche, Freud, Bloch ta abar. Jesuita egin ondoren, Erich Przywara irakasleaz, Kierkegaard, Dostoiievski ta beste ainbat filosofu ta pentsalari sakonduko ditu. Ikasurte oneen lenengo frutua «Apokalipse der deutschen Seele» izango da.

Ta teologi ikasketak Frantzian egingo ditu. An beste mundu bat aurkitzen dau. Alde batetik Frantziko olerkari ta pentsalarien mundua ta bestetik Eleizaren amaitu ezitezko kultura. Bernanos, Peguy, Claudel oso atsegingarri izango jakoz. Eurokin lihuratuta daukagu Balthasar ta laster asiko da euron liburuak alemanera itzultzen. Esaterako, czkerrak berari, Claudelen «Soulier de Satin», Parisen bertan baino leenago antzeztuko da alemanez Zurichen! Henri de Lubacen eraginez, Eleiz Gurasoen kultura zabalean sartuko da. Jean Danielou kide arturik, asiko da aztertzen: Origenes, Nisako Gregorio, Maximo, Agustin. Frantzian bertan, ezagutuko dau Teilhard de Chardin ta beronen itzaldici ezker asiko ditu natur zientzi ikasketak. Ikastaro oneen frutua: «Verbum Caro», «Das Herz der Welt», «Herrlichkeit» beste ainbat frutu ederren artean.

Bere jakituri guztia fedearen argiaz gozotuta ageri da. R. Guardiniren pentsamentua oso osorik egiztatzen dau: «izadiko elementuak fedearen argitan eltzen dira euren osotasunera». Gurasoengandik artzen dau fedea: «Nire gurasoak katolikuak ziran eta ez egoan eurentzako gauza nabariagorik katoliku izatea baino. Esan bearra daukat, ziurtasun orixe izan dodala neure bizitza guztian». Kristori begira aitopen eder au dakar: «Istori guztian,

ez dago Jesus bezelakorik, ta egon be ez da egingo. Gizon batek, Jaungoikoaren aginpidez, arrotasun barik, esan eta egiten 'Entzun dozue, baina nik, barriz, auxe dirautsuet'. Yahveren indar guztia 'Ni' orretan dago. Bere existentzi guztia, bere mezua, bere eriotza ta bere berbizkundera: Jaungoikoaren azalpenak baino ez dira. Jesus zatitzen badogu bere orokortasunean, olako Jesus istoriko bat ataratzeko, galduta gagoz, Apostoluek pasiño aurretik bezela, ez dogu ezer ulertuko».

Eleiza gaurko munduan

Balthasarrentzat, Vaticano II'nak dakarren pentsamentu ta fraseri ederrena auxe da: «Lumen gentium cum sit Christus». Kristo da Eleizaren biotza ta Eleizak beti aurrean euki bear dauan itauna auxe da: «Zelakoa izan bear naz, nire bitartez, gaurko gizon-emakumeak benetako Jesukristo aurkitu ta jarraitzeko». Eleizaren egin bearra orixe da. Beste egin bear guztiak elburu orreri begira dagoz. Balthasarrek Eleiza ikusten dau «zentrifuga abiadan, ta ez Israelen antzera, zentripeta abiadan». Eleiza berez izan bear dau mixiolari «Kristo erri ta enda guztiei iragar-teko». Ta ortik atarutzen dau beste oiñarri paregabeko au: «Eleizarentzat ez dago beste lur santurik, mundu zabala izan ezik». «Eleizak daukon areriorik aundiena galikanismo edo nazionalismoa da: gizonen ta errien artean mugak sortzen ditualako. Eleiza istorian murgilduta iragarri bear dau Kristo baina Kristo kultura guztien gaintik dago». Idea oneek beste bere liburu famatu baten be agertu ebazan, «Raser les bastions» liburuan, ain zuzen, 1952.an

Kristau guztien betebearra da Kristo iragartea: «Santuak bear dira Eleizan ta ez ezstrukturen aldaketetan ainbeste energi galdu. Inor ez da Kristogana biurtuko Eleizan magisterioa edo sakramentuak edo araudi barria edo eleiz-ordezkarriak dagozala-ko. Kristogana biurtuko da, kristau baten ejenplu ta testigantzaren bidez, ta Kristo aurkitu ondoren errez eleizaratuko da». Ez dau inondik be onartzen Rhaneren «izen gabeko kristau izatea». «Cordula» liburuan agerturiko pentsamentu berberak gogoratzen ditu barriri be. Or kristautasuna urtuta bezela ikus-

ten dau ta «Eleiza ez da kolektibitate bat, ezin lei ulertu aurpegi gabeko kristaurik».

Kristautazuna ta karismak Eleizan

Badira onetaz naiko tirabira. Istorian zear be makina bat «tensio» ezagutu izan dira. Or Jokin Fiore ta amaika ezezik, ama-bi gizon bikain. Badirudi, azken urteotan, fioristen aldia sendotu egin dala. Erroma aurkako «konplexu» zoriontsua tinko dirau. Alan bada be, Balthasar ez datorkigila «jokinisten» arraz jota ta gogor salatzen dau konplexu ori:

«Liburu Santuak, Eleiz-Tradizioa ta Eleiz-ministaritza kate baten iru maila baino ez dira. Ez dago Liburu Santurik, Tradizio ta ministaritza bage, ezta ministaritzarik Liburu Santu ta Tradizio bage. Eleiza, Kristoren Korputza, bai kanpotik ta bai barrutik, Espiritu Santuak egiten dabenez, ministaritza bera be karisma iraunkor bat baino ez da». Pentsamentu au azaltzeko konparaziño bat dakar: «Soinean azurrak beteten dabena, instituzio-estrukturak beten dabe Kristoren Eleizan».

Normaltzat jotzen ditu karismen tarteko gorabera ta tirabirak baina «inoiz bere ez dira karisma orreek alkarren aurka jezarriko. Guztiz sakabanatzen dauan karismarik ez dator Jesusen Espirituagandik». Au baieztatzeko, oiñarri sendo bat dauko Balthasarrek begien aurrean: «Verbum caro factum est», au da, gizonok korputz garanez, «Jaungoikoagandik datorkigun guztia, aragi biurtu bear da, giza pertsonentzat ezer izatekotan». Ezin dau Balthasarrek ulertu lañutako Eleizarik.

Oinarri berau erabilten dau, ez bakarrik «Zen» ta beste olako bidei buruz, baita sexualitateari ta askapen teologiari buruz diarduanean be: «Jaungoikua aurkitzeko ez dago «abstrazio» premiñarik. «Zen» ta beste antzeko meditaziño bideak onak izango dira bake sikologikoa lortzeko baina ez Kristoren Jaungoiko bizia aurkitzeko». Gaurko sexualitatearen arazoak dirala-ta: «Oraindino platonismoaren kutsua sentitzen da ta sexualitatea korputz barik ulertu nairik dabilta. Ori Jaungoikuaren gizakundearen

aurka agiri agirian dago. Ez dago kristau batentzat korputz gabe-ko sexualitaterik».

Askapen teologiatzaz be, oinarri berbera darabil naizta zeaztasun eztabaidagarriak jarri: «Teologi orren mami guztia, azken baten, Kristoren agindu barriari lotuta ez ete dago edo Jesuskristoren beste berba oneetan ez ete da finkatzen: «nire anai oneetariko txikiren bati egin zeutsena, neuri egin zeusten». Orretarako beste teologi sistema barri edo Kristologi barri baten preminarik ez daukagu» Teresa Kalkutaren testigantza dakar bere iritxia baieztatzeko: «Kristoren mandamendua barria bizitzaz egiztatuz bultzatzen da jendea ta ez teologi sistemekin. Induek ta mundu guztiak miresten dabe Teresa Kalkuta, ez «inkulturaziño»ta olako edo alako askapen teologia darabilelako, bere egiteak benetakoak diralako baino. Fedearen ta kulturaren bitarteko zubia, beste gauza guztien gainetik, Kristori apaltasunez ta egiteekaz jarraitzen dabenak egingo dabe, batez be kristau erasotuak ta martiriak».

Badira liburuan ainbat beste kritxi interesgarri gaur eguneko kristau batzuei buruz be. Batzuk, euron tartean Juan Pablo II ta Adriana von Speyr, goralpen ederrak artzen dabez. Beste batzuentzako ostera, esaterako Hans Kung ta Lefevbre gotzaiarentzat, berba gogorak ditu. Eleizarengan, itzelezko maitasuna agertzen dau Balthasarrek: «Eleizak bi mila urte igaro izan ditu ta beti tinko iraun izan dau ta ez da eldu egun batetik bestera «Eleiz-postkontziliarra» izatera. Baliteke batzutan nire berbak naiko garratzak izatea baina ain maitagarri jat Jesusen Elciza».

A. Olea